

Etxebizitza publikoa, teknika berriak: Etxebizitza sozialaren begirada kritiko bat, eta orain arteko ereduaren egin daitezkeen aldaketak.

Laburpena: Etxebizitza soziala behar batzuei aurre egiteko sortu zen. Gobernuek diru asko inbertitu dute etxe sozial sare bat sortzeko, baina programa aldetik berrikuntza handirik ekarri gabe. Gaur egungo teknikak aukera handiak ekartzen dituzte etxebizitza publikoaren garapenerako.

Gako-hitzak: Etxebizitza publikoa, industrializazioa, espazio amankomunak

Abstract: Social housing was created to respond to social needs. Governments invested significant amounts of money to create a network of social housing, however innovative programme related solutions have not been delivered. Up-to-date techniques can be used for social building development.

Keywords: social housing, industrialization, common space

Aritz Perez.

EHUko Arkitektura Eskolako ikaslea eta idazlea.



Jasotze data: 2015-05-22 / Onartze data: 2015-01-20

Etxebizitza gure inguruan dugun esparru pribatu propio nagusia da. Gure bizitza bertan ematen dugu, eta haren egitura, estetika, zatikatzea eta abarrek gure ekintzak asko bideratzen dizkigute. Haren prezioa dela, eta, normalean bizitzan izaten dugun aukera nagusia izan ohi da, erabaki nagusietakoa. Kulturalki gure ingurunean etxebizitza erosten da orokorki, eta alokairuan egotea etxebizitza bat erosteko gai ez izatearen erakusgarritzat jotzen da.

Estatu mailan etxebizitzaren eboluzioa azken mendean gorabeheraz josita egon da. Gerra zibiletik urte batzuk pasa ondoren, estatuaren industrializazioarekin bat, industria berriei lotutako etxe sortak agertzen hasi ziren (gure inguruan, adibidez, CAFen¹ etxebizitzak Goierrin). Nekazaritza-inguruetakoa jendea hiri eta herri nagusietara migratzen hasi zen industriak ekarri zuen garapen-aukera aprobetxatzeko. Demokraziarekin bat eraikuntzaren mundua eraldatu zen. Behar bat zena negozio bilakatu zen, eta, horren ondorioz, eraikuntzaren mundua espekulazioarekin zuzenki erlazionatua ibili zen, urte askotan zehar erabili den termino bat sortuz: eraikuntzaren burbuila. Esandako eraikuntzaren burbuilarekin bat, prezioen igoera etorri zen, eta bankuek negoziogune on bat topatu zuten kredituetan.

Baina etxebizitza sozial edo babestuen kasuan, desberdina izan beharko luke. Sustatze publiko izanda, jabeagoa ere publiko izango litzateke, baina formalki babes ofizialeko etxebizitza gehienak gaur egun salmentan eskaintzen direnez, ia pribatutzat har daitezke (kasu askotan 75 urterako lagatzen da pisua). Desberdintasun hori egon arren, programa-arloan, ordea, oso antzekoak dira, eta artikulu honetan gogoeta bat proposatzen da familia

¹ CAF: Construcciones y Auxiliares del Ferrocarril.

anitzeko etxebizitza-bloke babestu, sozial eta publikoetan eraldaketa bat gauzatzeko.

Industrializazioaren aplikazioa arkitekturan eta Open Building

Gaur egun, etxebizitzaren inguruko ikerkuntza eta berrikuntza materialen munduan gertatu ohi da oro har. Eraikuntza-material, -teknika eta abarretan ikusten da, bai, nolabaiteko garapen bat, baina funtsezko ideia programatikoetan ez da garapen bera ikusten. Teknifikazio handia duten zenbait elementu (fatxada aireztatuen kasu) barruko orrian adreilu tradizionalarekin jarraitzen da. Baina hori ez da berdin munduko alderdi guztietan.

Japonian, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, etxebizitza-behar larria zegoen. Guda latz horren ondorioz, eta erabilitako material tradizionalen ondorioz ere, suntsitutako etxebizitza kopurua izugarrikoa zen. Ordura arte familia anitzeko etxebizitza-blokeak ez ziren normalak Japonian, eta horren ondorioz, haien sorrera sektore askorentzat benetako erronka bat izan zen (gobernua, arkitektoak, unibertsitatea, eraikuntza-industria...). Sektore guztien inplikazioari esker, urte gutxitan Japoniako eraikitze era erabat aldatu zen, eta horren guztiaren atzean erakunde publiko bat zegoen: Industria Ministerioaren barne dagoen Eraikuntzaren Ministerioa. Emandako aurrerapauso nagusietako bat eraikuntzaren aurrefabrikatzean eman zen. Japoniako arazo nagusietako bat obran barreneko eskulanaren prezio altuetan zegoen. Horren ondorioz, eta alderdi publiko-pribatuaren sustapenarekin, aurrefabrikazioa asko garatu zen. Autogintzan, adibidez, erabiltzen diren zenbait kontzeptu aintzakotzat harturik, arkitekturan



Irudia ~ Next 21, Osaka.
Egilea eta Iturria- Flickr Hiromitsu Morimoto CC-BY (2010).

aplikatzen saiatu izan dira (adibidez Toyotako filosofiaren inguruko Lean filosofia). Industrializazioa arkitekturan sartzean, teknifikazioa eta efizientzia handituz joan dira eta obra garaiko epeak laburtu.

Sistema desberdinen artean, Japoniako Ministerioa eta zenbait arkitekto hirurogeiko hamarkadan Herbehereetan sortu zen mugimendu batean interesatu ziren, Open Building deritzona. John Habraken arkitekto herbeheretarrak 1961. urtean lehen aldiz Support kontzeptuaz hitz egin zuen bere De Drangers en de Mensen: het einde van de massawoningbouw liburuan (gero 1972. urtean Supports: An Alternative to Mass Housing izenarekin itzuli zen ingelesera). Sistema horren bidez, eraikuntza bat bi atal desberdin eta independentetan banatzen da: Support (eraikuntzaren oinarri edo euskarria) eta Infill (aldagarria izan daitekeen eraikuntzaren barne-banaketa). Horren ondorioz, egitura eta barne-banaketak guztiz aldentzen dira. Industrializazioak eman dezakeen malgutasunari esker, eraikinaren Infill alderdia aldatuz joan daiteke, egitura ukitu gabe, eraikinaren funtzio eta funtzionamendua eraldatuz. Horri esker, etxebizitza oso moldagarria izango da denboran zehar.

Horren adibide nagusietako bat Next 21 izeneko eraikina izango litzateke, Japoniako Osaka hirian bertako Gas Konpainiaren eskutik 1994. urtean eraikia. Yoshitika Utida arkitektoak sortu zuen Support espazioa kalearen zabalkuntza moduan, hiriaren eta etxebizitza pribatuaren arteko trantsizioa gauzatzeko. Baina Infill-a beste 13 arkitektoen esku geratu zen. Haietako bakoitza bertan biziko zenarekin kontaktuan jarri zen, eta beraien bizitzeko erara moldatu zen espazioa. Horren ondorioz, etxebizitza bakoitzak ez du zer ikusirik besteekin. Open Building sistemaren malgutasuna erakusten du, eta John Habrakenek berak sistema horren eredu argizat hartzen du Utidaren lan hau. Eraiki zenetik hogeitaz urte hauetan Infill horiek eraldaketa sakonak jasan dituzte, bertan bizi direnek bost urteko alokairu-kontratua izaten baitute, baina Next 21 eraikinaren esentziak bertan jarraitzen du.

Etxebizitza sozialaren berrikuspena

Oro har, etxebizitzaren datuak jakin behar direnean, hiru faktore hartzen dira kontuan merkaturatzean: azalera, barne-banaketa eta salmenta-prezioa. Horrela, edozein egunkaritan honelako iragarriak irakur daitezke: Etxebizitza-salmentan, 90 m², hiru logela, bi komun, sukalde handia eta sala. 180.000 €. Horietaz gain, ez da informazio gehiagorik ematen. Etxebizitza espazio moldakaitz bat balitz bezala ulertzen da, eta eraiki zen moduan mantendu behar dela dirudi, nahiz eta aurretik bizi zen familia-tipoa eta etorriko dena guztiz desberdinak izan.

Gaur egun etxebizitza sozial desberdinak aurki ditzakegu. Nahiz eta gehienak salmentako babes ofizialeko etxebizitzak izan, beste eredu batzuk ere badaude: alokairukoak, hirugarren adinekoentzako babespeko etxebizitza lagunduak, ezintasun konkretu bat dutenentzako babespeko etxebizitza lagunduak, etab. Baina, oro har, eraikuntza tradizionalako eraikinak dira, eta eraldatzeko arazo handiak egon daitezke. Zenbait eredu aztertu ondoren, eraikuntza sozialek, oro har, honako baldintza hauek eduki beharko lituzkete:

Kasu konkretu batzuk kenduta (ezintasun konkretu batzuen kasuan, adibidez), etxebizitzak alokairuan eman beharko liriateke, benetako behar sozialei erantzuna emateko. Horrek espazioen malgutasuna eskatuko luke, aldiro aldaketak egitean, pisua pertsonaren arabera moldatu beharko baita, eta ez kontrakoa. Etxebizitza babestua behar baten aurrean gizarteak sorturiko elkartzun-tresna bilakatu behar da, eta ez gaur egungo loteria, non bizitza osorako pisua lortzen duzun nahiz eta urte gutxitara zure egoera sozial eta ekonomikoa asko hobetu.

Etxebizitza publikoa eta pribatua bereizi behar dira. Etxebizitza pribatuetan bai sustatzailea bai eta bezeroa ere pribatuak dira, eta horren ondorioz eraikuntza bien arteko negoziaketa bat bilakatzen da bien onurarako. Etxebizitza publikoen kasuan, hirugarrenengo baten onura bilatzen da, behar konkretu batzuk dituen pertsona batena. Horren ondorioz, negoziaketa ez du lehentasuna izan behar, kolektibotasunaren garapena lortzeko tresna baizik. Egoera

zailagoa dutenen garapen pertsonala lortzeak eta etorkizuna bermatzeak izan beharko luke etxebizitza publiko sozialaren ardatz nagusia.

Bertako materialak eta teknikak indartu eta garatzen saiatu beharko litzateke. Ez du zergatik egoitza-esparruan bakarrik eragina izan behar, ekonomiaren sustatzaile ere bilakatu beharko luke, eta areago gaur egungo krisi-garaian. Gure inguruan badira industrializazioaren arloan lan egiten duten enpresa garrantzitsu batzuk (Egoin zurezko aurrefabrikatuak, adibidez) eta haien erabilerak etxebizitzaren inguruan garapen argi bat eman dezake. Horreen adibide argi bat Austriako Vorarlberg lurraldea izango litzateke. Bertan tradizioz egurra landu izan da etxebizitzaren atal guztientzat, eta garai batean tradizionala izan zena, gaur egun teknifikatzen eta garatzen doa. Bultzada horri esker, Vorarlberg mundu mailan da ezaguna.

Sustapen publikoa izanda, esperimentaziorako eta saiakerarako esparru bat izan daiteke. Diruak ez du zergatik baldintzapen bakarra izan behar. Onura soziala garrantzitsuagoa izan daiteke oraindik. Programa berritzaile batzuen bidez bizitzeko moduen inguruko gogoeta bat bultzatu beharko litzateke, etxebizitza tradizioaletatik at. Gaur egun nahiko kolokan dagoen Madrilgo EMVSM², adibidez, etxebizitzaren berrikuntza-proiektuak proposatu zituen. Industrializazioa, oinplano desberdinak, etab. sustatzen ziren, eta besteak beste hemen kokatuko zen Manubuild europar proiektua.

Diseinuan bertan biziko denaren parte-hartzea sustatu beharko litzateke. Hori jada gertatzen da etxebizitza pribatu familiabakarrekoetan batez ere, baina zailagoa da familia anitzeko blokeetan. Eraikin publikoetan gaur egun konplikatuak da parte-hartze hori, askotan eraiki ondoren erabakitzen baita nor biziko den bertan. Open Building bezalako sistema bat erabiltzean, Support-a eraiki ahalko litzateke, eta horren ondoren, behin bertan biziko direnekin hitz eginda, Infill-ak gauzatuko lirateke (aipatutako Next21 eraikina horren adibide garbi bat izan daiteke). Baina galdeketa horrek ez du etxebizitza soilean geratu beharko, amankomunean konpartituko diren espazioak ere amankomunean hitz egin beharko lirateke. Stephen Kendall-ek Aldiriren 5. zenbakian honela definitu zuen parte-hartze hori: «Open Building-en funtsean dago eraikitze-prozesuan norbanakoaren bizilekuak duen parte-hartze garbi eta erabakigarria. Hala ere, interes partekatuek ere badute garrantzirik. Kontrolerako bi eremu horiek ezinezkoa dute nahastea edo elkarri lotzea, eta ez lukete behar. Ordea, oreka zein nortasuna eskatzen du kontrol bikoitz horrek. Zer erabaki har ditzake sendi batek? Eta zer definituko ote du etxe soila bere barne hartzen duen komunitateak? Etxadi kolektiboetan, galdera erraz baina ez nahi bezain sarri erantzuten da; galdetzea ere ez da ohikoa».

Etxebizitza publikoetan esparru publiko berriak

Azken gogoeta bezala, familia anitzeko etxebizitza-blokeetan sor daitezkeen espazio komunak aztertu beharko lirateke. Espazio publikoen eta pribatuen arteko bitartekoak dira. Lehen esan den bezala, etxebizitza sozialetan garapen bat gerta daiteke programa aldetik, merkatuko kanonetatik at.

2 EMVSM: Empresa Municipal de la Vivienda y Suelo, Madrilgo Udala



Irudia ~ Etxebizitza soziala Danimarkan.
Egilea ~ Flickr seier+seier CC-BY (2008)

Gaur egungo blokeetan, espazio komunak, oro har, ataria, eskailerak eta ate-aurreak izan ohi dira. Blokearentzat onurak izan beharrean, kargak besterik ez dira, hilerok ordaindu beharreko kargak. Baina espazio horiei funtzio bat ematen bazaie, elkarbizitza, sozializatzea eta bizi-kalitateak hobetuko dira. Gaur egungo gizarte isolatuan, elkarbizitzarako guneak oso aberasgarriak dira. Antzina bizitza osoa bloke berdinean bizi ondoren, guztiak familia baten antzera funtzionatzen zuen. Baina gaur egungo mugikortasuna dela-eta, gure pisua esparru itxi eta konexio gabea bilakatu da. Ez dugu ezagutzen ondoko pisuko bizilaguna.

Puntu honetan bizitzeko zenbait era proposatzen ditut, espazio publiko-pribatuak aprobetxatzeko ez karga bezala, baizik eta onura moduan:

Gaueko espazioak guztiz pribatuak izan badaitezke ere, eguneko espazioak (sukalde, jangela, egongela, etab.) komunak izan daitezke. Horrela funtzionatzen dute gaur egun unibertsitateetako erresidentziak, babespeko etxebizitza lagunduak, bai eta modu orokor batean partekatutako pisuak ere. Gatazka-guneak izan daitezke, baina gatazka hitzari bere ikuspegi guztiz peioratiboa kendu behar zaio. Konfliktu baten aurrean erantzunak sortzen dira, eta erantzun horiek oso onuragarriak izan daitezke.

Blokeetan espazio komun batzuk sortuaz, gaur egungo isolamendua hautsiko litzateke. Mota askotakoak izan daitezke: funtzio anitzeko espazio neutroak, terraza edo solariumak, gure inguruan horren zabalduak dauden txoko edo elkarte gastronomikoen antzeko espazioak, sektore pribatuak sor ditzakeen zenbait zerbitzu eskaintzeko guneak... Kopenhagen, adibidez, Orestad Sejlhuset eraikinean kafetegi bat eta haurtzaindegi bat daude espazio komunetan.

Industrializazioak eta Open Building filosofiak ematen diguten malgutasunari esker espazioak eraldatuz joan daitezke, bai pisu bakoitzaren kasuan bai eta espazio amankomunetan ere.

Eraldaketa bakoitzak ondorioak ekarriko ditu elkarbizitzan, eta ondorio horiek espazioak hobetzeko aukera anitz. Kontuan izan behar da gure bizitza urteetan zehar garatzen doala, eta etxebizitzak garapen honen aurrean aukerak eman behar dizkigula. Gure etxeak ez du kortse fisiko bat bilakatu behar.

Bibliografia:

Kendall, S. eta Teicher, J. (2000): *Residential Open Building*, E & FN Spon, Londres.

Kendall, S. (2011): «Housing Crisis. Open Building», Aldiri Aldizkaria, 5.

Zenbait Egile (2013): *Social Housing. Viviendas Sociales-V.P.O.* Monsa, Bartzelona.

Montes, J.; Camps, I.P. eta Fúster, A. (2011): «Industrialización en la vivienda social de Madrid», *Informes de la Construcción*, 63 (522), 5-19.

///